

Monografiak KATALOGATZEKO OINARRIZKO TXANTILIOIA

Txantiloia honen helburua da Sareko katalogoaren kalitatea bermatzea. Horretarako, honakoak hartu behar dira aintzakotzat bai erregistro bat aldatzerakoan bai berria sortzerakoan:

IDAZPURUA	Berrikusi eta akatsak zuzendu. "Karaktere-kodifikazioaren eskeman" # jarri beharra dago.
T007	Paperean ez dauden (baliabide elektronikoa...) monografietan bakarrik beteko da.
T008	Oso erabilgarria erregistroak berreskuratzeko. Ongi birpasatu etiketa hau. Erne honako posizio hauekin: 22 = jasotzaile maila 23 = argitalpen mota (dokumentu elektronikoak, s) 24-27: edukiaren izaera 33 = literatura mota 35-37 = hizkuntza (zein den hizkuntza nagusia, batetik seira hizkuntza daudenean; gainera, mul bakarrik erabiltzen da seitik gora hizkuntzatan dauden lanetarako.) 39 = katalogazio iturria (jarri c lehengo d-ren ordez).
T017	Ez da teklatuko DL ezta LG ere, zeren eta literal hori jada definitu baita 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan. Zenbakia eta urtea gidoi batez banatzen dira. Zenbakiari milakoa eta ezker aldeko zeroak (egonez gero) kenduko zaizkio. Urtea lau digituren bitartez adieraziko da, alde batera utzita iturrian nola agertzen den. 2020 urtetik LGko siglak aldatu dira: G (Araba), D (Gipuzkoa), BI (Bizkaia)
T020	Okerra bada, ISBN-n bilatuko da forma zuzena. Nolanahi ere, biak jasoko dira.
T040	Katalogoen fusioaren aurretikoak: \$b (funtsezkoa da atxikitako bistaratzeek funtziona dezaten), \$c eta \$d osatu egingo dira. Egungo erregistroak: \$a\$b\$cELS, zerbait aldatzen badugu, ez dugu \$d jarri behar.
T041	Birpasatu. Hurrenkerak hizkuntzek dokumentuan duten lehentasuna adierazten du. Horrelakorik ez bada, alfabetoaren hurrenkera erabiliko da. Lehenengo adierazlea 1 izango da, bere baitan itzulpenik baldin badu.
T080	Lehen adierazlea 1 izango da (edizio laburtua) Itzulikako notazio kendu egingo dira. Zenbakien eta letren arteko hutsuneak kendu egingo dira. Haur-liburuak 087.5 batez hasiko dira. Argitalpen seriatuetan 05 eta 051 laguntzaileak kendu egingo dira. Erabili gabe dauden notazioak eguneratu egingo dira.
T1XX	Balidatzeke daudenak balidatu egingo dira.

T240	Legegintza, liturgia-liburuak, literatura-klasikoak eta abar.
T243	Lan osoak, lan hautak, literatura-generoa, itzulpenak, antologiak, legegintza modernoa eta nazioarteko hitzarmenak.
T245	Puntuazio-zeinuak \$b azpieremuaren aurrean doaz.
T246	Izulikako agiriak, izenburu alternatibo eta paraleloak eta abar. Ez dira literalak idatziko, zeren jadanik 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan definitu baitira.
T250	Amaiera puntua kentzea.
T260	\$e eta \$f eremuak ezabatu egingo dira, baldin eta editorearen izena (\$a eta \$b) ezagutzen bada. Data Legezko Gordailuarena bada, D.L edo L.G. idatziko da (letra larriz eta hutsunerik utzi gabe).
*T264	RDaren arabera katalogatutako erregistro bat hartzen badugu, ez zaigu T260 eremua agertuko T264 baizik, hemengo informazioa T260ra eskuz pasatu beharko dugu.
T300	"orr." laburdura zuzendu, eta or. ipini. Amaiera puntua kendu "cm." laburduratik. "zm" zuzendu, eta cm ipini. CD-ROM eta DVD-ROM letra larriz idatzi behar dira.
T440	Etiketa hau kendu egingo da, eta datuak T490-ra pasako dira.
T490	T800/T830 bat sortuko da, serieak homogeneizatzeko.
T500	Ez da egingo aleen ezaugarri partikularrei buruzko oharrik (adibidez, "eskainia", "ataririk gabeko alea"...). Datu horiek aleen erregistroaren "Testua" eremuan adierazten dira.
T505	\$g, \$t eta \$r erabiliko dira; beraz, oraindik \$a duten erregistroak zuzendu egin behar dira. Ez dira literalak idatziko, zeren jadanik 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan definitu baitira. "Contiene" literala kendu egingo da, idatzita dagoenean,
T520	Ez dira literalak idatziko, zeren jadanik 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan definitu baitira.
T521	Ez dira literalak idatziko, zeren jadanik 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan definitu baitira.
T530	Ohar honetako "También" hitza kentzea erabaki dugu, etiketaren izenak berak argi aditzera ematen duelako euskarri fisiko "gehigarria" dela, eta, hortaz, errepikapena delako. Beraz, "Disponible en" sarrera eta dagokion formatua erabiliko ditugu. Kontuan hartu T776 edo T856 bat sortuko duela.
T538	Ez dira literalak idatziko, zeren jadanik 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan definitu baitira.
T546	Oso garrantzitsua da gogoratzea hizkuntzen hurrenkera etiketa honetan albabetikoa dela, hau da, ez duela zertan bat etorri T041 etiketakoarekin.
T590	Ez dira literalak idatziko, zeren jadanik 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan definitu baitira. "Descripción basada en" literala kendu egingo da, idatzita dagoenean,

T594	Oharrak homogeneousatu, gomendatutakoak kontsultatuz.
T597	Oharrak homogeneousatu, gomendatutakoak kontsultatuz.
T6XX	Balidatzeke daudenak balidatu egingo dira. Adierazle okerrak zuzendu egingo dira.
T7XX	Balidatzeke daudenak balidatu egingo dira.
T740	Egile beraren bigarren lanak eta hurrengoak, baita lehenengo egileaz besteko egileen lanak ere.
T773	Ez dira literalak idatziko, zeren jadanik 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan definitu baitira. "En" literalak kendu egingo da, etiketan idatzita dagoenean, Etiketak esteka bat eramango du.
T774	Monografikoak. Etiketak esteka bat eramango du.
T776	Ez dira literalak idatziko, zeren jadanik 040-ren \$b-an agertzen den hizkuntzari atxikitako bistaratze moduan definitu baitira. Etiketak esteka bat eramango du.
T830	Autoritate gisa balidatuko da.
T90X	Bigarren adierazlea zuzentzea 0 agertzen denean, zuriz jarri nehar baita.
T999	Ohar bakoitza dagokion etiketan jarriko da: T500, T546, T594 eta abar. Tokiko bilduma kokatuko da \$aLiburutegia\$bFondo local / Tokiko bilduma AFak Rebecara bidali behar dituen erregistroak hemen adieraziko dira (Ez ezabatu). Lehendik katalogatutako erregistro batean oinarritzen bagara, T999 eremu hau ezabatuko dugu, osterantzean, ezin izango dugu eta inzidentzia ireki beharko da.
NULL	Kendu egingo dira.
OROKORRA	Beti eskura eduki esku-liburuak, zerrendak eta eranskinak. Irakurri eta kontsultatu behar beste aldiz. Adi egon adierazleei. Kopia bat antzemanaz gero, erregistro egokienean kokatu, edo Liburutegi Zerbitzura abisatu. Zuzendu oraindik letra larriz edo balidatzeke daudek autoritateak.